

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**593/2022 Foru Agindua, abenduaren 19koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezien oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak**

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 24ko 289/2022 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kidegoei eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehen xedapen gehigarriak, Administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluekin loturik, ezartzen du ezen, legea indarrean sartzen denean, euskal administrazio publikoek enplegua egonkortzeko prozesu bereziak egin ahal izango dituztela oposizio-lehiaketa sistemaren bidez enplegu publikoan sartzeko.

Foru agindu honen bidez onesten diren oinarri orokorretan, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko enplegua egonkortzeko prozesu berezien deialdiei aplikatu beharreko araudia jasotzen da.

Oinarri horiek Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko langileen ordezkariak sindikalariekin negoziatu eta adostu dira.

Bat etorritik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 23. artikuluan eta II. tituluko IV. kapituluan langileen hautaketari buruz ezarritakoarekin, eta Funtzio Publikoaren Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuan eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Foru Administrazioaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezien oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak eta foru agindu honen eranskinean jasota daudenak.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 19a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo  
Sustapenaren eta Foru  
Administrazioaren Saila  
Departamento de Fomento del  
Empleo, Comercio y Turismo y de  
Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza  
Dirección de Función Pública

## I. ERANSKINA

**FORU GOBERNU KONTSEILUAREN MAIATZAREN 24KO 289/2022 ERABAKIAN, ZEINAREN BIDEZ ONETSI BAITZEN ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA, IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ EGONKORTZEKO EZARTZEN DIREN DEIALDI BEREZIEN OINARRI OROKORRAK.**

### 1. XEDEA

1.1 Oinarri hauen xedea da arau orokorrak ezartzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko eskala, azpieskala, klase eta espezialitateetan, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi berezietako oinarri espezifiko egokietan adierazten direnetan, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez sartzeko.

Izendapenez eta lanpostuaz jabetzeaz, aukeratutakoek Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izaera hartuko dute, gai horretan indarrean dauden xedapenek adierazten dituzten eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.2 Deialdi berezietan sarrera libreko sistema bakarra izango da. Desgaituentzako erreserba-kupo bat ezarri ahal izango da.

1.3 Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdien oinarri espezifikoaren arautuko dira. Deialdi horiek betiere honako hauek jasotzeko behar dituzte:

- Deitutako plaza dagokien taldea, sailkapen azpitaldea, eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klasea eta espezialitatea.
- Deitutako plaza kopurua eta haien banaketa derrigorrezko eta derrigortasun datarik gabeko hizkuntza-eskakizunen arabera.
- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko eskatzen den titulazioa.
- Deitutako plaza dagokien lanpostuetan jarduteko eskatzen diren betekizun espezifikoak.
- Oposizio aldiko gai zerrenda.
- Lehiaketa-aldian baloratzeko diren merezimenduak eta haien baremoa.
- Berdinketa hausteko irizpide gisa emakumeei lehentasuna emateko klausula aplikatzea edo ez aplikatzea.

### 2. BALDINTZA OROKORRAK



Deialdiko plazetan sartu nahi duten izangaiek bete beharko dituzte parte hartzeko baldintza orokor hauek, bai eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoeetan adierazten direnak ere, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario bezala lanpostuaz jabetu arte.

### **2.1 Izangaiek bete beharreko baldintza orokorrak.**

Hauek dira parte hartzeko baldintza orokorrak:

- a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urteik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

- b) Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.
- c) Behar den besteko gaitasun funtzionala edukitzea egitekoak betetzeko, eta ez izatea deitutako plazei dagozkien lanpostuko funtzioak eta egitekoak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.
- d) Dagokion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.
- e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaituta edo antzeko egoeran ez egotea, eta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten duenik.
- f) Indarreko araudiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea.
- g) Parte hartzen den deialdiari dagokion eskala, azpieskala, klase eta espezialitatean Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioa ez izatea.
- h) Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu izana parte hartzen den deialdi bakoitzean izena emateko tasa, zeinaren zenbatekoa oinarri hauetako 4. apartatuan zehazten baita.

### **2.2 Baldintza espezifikoak.**



Beraiek betetzeko baldintza espezifikoak ezarrita dauzkaten lanpostuekin loturiko plazak ezingo dituzte bete inola ere baldintza haiek betetzen dituztela egiaztatu ez dutenek.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan, zehaztuko dira deitutako plazaei dagozkien lanpostuetarako ezarrita dauden baldintza espezifikoak.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea baldintza espezifiko bat da hizkuntza-eskakizuna esleiturik eta derrigortasun data igarota daukaten lanpostuei dagozkien plazak lortzeko.

### **2.3 Desgaituentzat gordetako kupoa**

Desgaituentzat gordetako plazetarako lehiatzen direnek, parte hartzeko gainerako baldintza orokorrak betetzeaz gainera, indarrean dagoen legeriaren arabera ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasun maila aitorturik eduki beharko dute eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Aitorpen hori egiaztatzeko, administrazio organo eskudunak (foru aldundietako edo autonomia erkidegoetako sail eskudunak edo IMSERSOK) jaulkitako ziurtagiri egokia aurkeztu beharko da, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Pertsona horiek aukera hori adierazi beharko dute parte hartzeko eskabidean, eta ezingo dira aurkeztu txanda orokorrean.

Oinarri espezifikoetan, kupo horretarako gordetako plaza kopurua adierazi beharko da, hala badagokio.

Desgaituren bat gordetako kupoan lehiatzen bada eta, dagozkion ariketak gaingitu arren, plazarik lortzen ez badu, eta bere puntuazioa handiagoa bada txanda orokorreko beste izangai batzuek lortutakoa baino, bere puntuazio ordenaren arabera sartuko da txanda horretan.

Desgaituentzako gordetako plazaren bat hutsik geratzen badira parte-hartzailerik ezagatik edo hautaketa-prozesu egokiak gaingitu ez izanagatik, plaza horiek metatu egingo dira dagokien deialdiko sarrera orokorreko gainerako plazekin. Hala ere, gordetako eta desgaituek betetako plazak ez badira heltzen deitutako plazen %3ko tasara, bete gabe geratzen diren plazak hurrengo enplegu eskaintza publikoko ehuneko zazpiko kupoarekin metatuko dira, gehienez ere %10eraino, desgaituak enplegu publikoa lortzea eta haien lanpostuak hornitzea arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

### **2.4 Baldintza orokorrak eta bereziak betetzeko erreferentzia-datak.**

Lanpostuak lortu nahi dituztenek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dituzte baldintza orokorrak eta bereziak, oinarri hauetako 9.1 apartatuan euskarazko hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ezartzen den salbuespenarekin, eta haiek betetzen jarraitu beharko dute lanpostuaz jabetzen diren arte.

## **3 ESKAERAK AURKEZTEA**



### 3.1. Baldintzak, epea eta era.

#### 3.1.1. Baldintzak.

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi berezietan parte hartu nahi dutenek eskabide bana aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten deialdi guztietan, ondoko baldintza hauek betez:

- a) Eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte.
- b) Eskabide hori adierazitako epearen barruan aurkeztea.
- c) Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritako inskripzio tasa ordaintzea.

Ezarritako epearen barruan eskabidea ez aurkezteak edo tasa ez ordaintzeak hautaketa-prozeduran ez onartzea ekarriko du.

Hala ere, tasa moduan ordaindutako zenbatekoan akatsen bat izanez gero, errekerimendua egingo da akatsa zuzendu dadin 10 egun balioduneko epean.

Tasa epearen barruan ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea oinarri hauetan adierazitako epean eta moduan aurkezteko izapidea. Ondorioz, eskabidea ez aurkezteak deialdian ez onartzea ekarriko du.

#### 3.1.2 Epea.

Eskaerak hogeit hamar egun baliodunen barruan aurkeztu beharko dira, dagokien deialdi espezifikoaren laburpena Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### 3.1.3 Aurkezteko era.

Eskaerak eredu ofizial eta normalizatuan egin behar dira eta, lehenetsuz, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Publikoaren Atariaren bidez aurkeztu ([www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo)), eskabidearen atal guztiak beteta. Eskabideak barne izango du oinarri espezifikoetan ezarritako tasaren ordainketa telematikoa.

Salbuespenez, paper euskarriko eskaera eta tasaren ordainketa-gutuna helbide honetan eskuratu ahal izango dira: Giza Baliabideen Zerbitzua, Probintzia plaza 14, 3.a, Vitoria-Gasteiz.

Aplikatzekoa izango da, halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 16.4. artikulua.

Horretarako, onarpen eskaera bana aurkeztu beharko da parte hartu nahi den deialdi guztietarako, bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzenduta, eta honako hau adierazi beharko da hartan:

- A. Datu pertsonalak: Izen-abizenak, NAN zenbakia.
- B. Harremanetarako datuak: posta helbidea, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa.
- C. Parte hartu nahi den eskala, azpieskala eta (hala badagokio) klase eta espezialitateko deialdia.



D. Parte hartzeko txanda: Eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute txanda orokorrean parte hartu nahi dutela, edo, hala badagokio, desgaituentzat gordetako kupoan.

E. Oinarri orokorretan eta espezifikoean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direlako adierazpena, betiere aurkezteko epea amaitzen den egunean bete hain zuzen, oinarri hauen 9.1 atalean euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ezarritako salbuespenarekin.

F. Deialdian parte hartzeko eskabidea aurkezten den egunean egiaztatutako euskarazko hizkuntza-eskakizuna.

G. Euskarazko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ariketa egiteko aukera.

H. Oposizio aldiko hautaketa-proba zein hizkuntzaz egin nahi den, euskaraz ala gaztelaniaz.

Oinarri orokor hauen eta deialdietako oinarri espezifikoen ondorioetarako, parte hartzeko eskabidean izangaiek adierazten badu prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela – euskara jakitearen baldintza izan ezik –, erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskabidea aurkezteko garaian, izangaiek ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta lehiaketa-aldian alegatu nahi diren merezimenduak egiaztatzen dituen agiririk. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla behar den garaian egiaztatzea, hala eskatzen zaien izangaiei dagokienez.

#### 3.1.4 Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalen babeserako dagoen legeria betez, hautaketa-prozesu bakoitza kudeatzeko eskatzen diren datuak Giza Baliabideen Zerbitzuak kudeatzen duen “Enplegu Publikoaren Eskaintza” tratamendu jardueran sartuko dira, Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuetan lanean jarduteko izangaiei datuak kudeatzeko, eta haien aukera izango dute zuzentzeko, ezereztzeko, ezabatzeke, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko eskubideaz baliatzeko Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrera joaz (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Vitoria-Gasteiz, Araba).

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek espresuki baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren deialdi espezifikotan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko, baita Arabako Foru Aldundiak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan euskara maila egiaztatzeko ere, eta halaber informatikaren ezagutza, ikasketatitulua eta, hala badagokio, beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagozkien erregistroetan edo datu-bitartekaritzarako sistemetan kontsulta eginez.

Izangaiek beren eskaeran adierazi beharko dute ea baimenik ematen duten beren identifikazio pertsonalerako datuak lagatzeko beste administrazio publiko batzuei, baina soilik erakunde horiek lan eskaintzak egin ahal diezazkien legez jasotako moduetan, aldi baterako lan poltsa sortzen baldin bada.

Tratamenduaren arduraduna: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua.



Helburua eta erabilera aurreikusiak: Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean zerbitzuak emateko langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea eta parte-hartzaileei informazioa ematea. Zehazki, erabilera hauek: partaidetza eskaerak kudeatzea, probetan egokitzapenak egiteko eskaerak kudeatzea, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratzea, probak kalifikatzea eta meritua balioestea, prozesuekin loturiko erreklamazioak eta errekursoak kudeatzea, prozesuan zehar eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa kudeatzea, probetarako bertaratzeak kontrolatzea, ziurtagiriak egitea, prozesuen datu historikoak kontsultatzea, ikerketak eta estatistikak egitea, lan poltsak kudeatzea.

Legitimazioa: interesdunak emandako baimena.

Datuen hartzailea: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak tratatuko ditu datuak, dagozkien lan poltsak (holakorik izanez gero) kudeatzeko eta langileen kudeaketa integrala egiteko. Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei ere utzi dakizkieke datuak, beren lan poltsarik ez dutenean.

#### 4. IZENA EMATEKO TASAK

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek ondoren adierazten diren tasak ordaindu beharko dituzte izena eman nahi duten deialdi bakoitzerako, eskaerak aurkezteko epearen barruan:

TALDEA/AZPITALDEA	KUOTA
A (A1)	30 euro
B (A2)	30 euro
C (C1)	20 euro
D (C2)	20 euro
E (LT)	10 euro

Izena emateko tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik. Horren ondorioz, baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gaingitzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik izangairen bat hautaketa-prozesutik kanporatuz gero, ez zaio itzuliko ordaindutako tasa.

Tasa hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira eskaera aurkezten den egunean:

- ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela egiaztatzen dutenak.
- eskaeraren dataren aurreko azken hilabetean gutxienez enplegu eskatzaile izan direnak. Ezingo dira salbuespen horretaz baliatu "enplegu hobekuntzaren" eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, ez eta enplegu eskatzailearen prestazio ekonomikoak jasotzen ari direnak ere.

Salbuespenerako eskubidea dutenek ondoko egiaztargiri hauen kopia zigilatua aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera:

- Desgaituek: Desgaitasun ziurtagiria.
- Enplegu eskatzaileek: 1. enplegu eskatzaile gisa izena emanda egondako aldiak ziurtatzeko enplegu bulegoak (Lanbide) edo baliokideak egindako ziurtagiria. 2. Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, zinetan azaltzen baita ez dela jasotzen ari langabezia prestazio edo laguntzarik.



Salbuespena justifikatzen duten jatorrizko agiriak aurkezteko eskatu ahal izango da.

## 5. IZANGAIAK ONARTZEA. ERREKLAMAZIOAK

5.1 Behin eskaerak egiteko epea amaituta, bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak, gehienez ere hilabeteko epean, foru agindu bat emango du, zeinaren bidez onetsiko baita deialdi bakoitzean onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, baztertuen kasuan baztertzearen arrazoia adieraziz. Foru agindu hori Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Baztertuek edo argitaratutako datuetan okerren bat hautematen dutenek hamar egun baliodun izango dituzte, behin-behineko zerrendak Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, egin ahal izan diren okerrak zuzentzeko.

Erreklamazioak bide elektronikoz egingo dira, Arabako Foru Aldundiaren enplegu atariaren bidez ([www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo)), edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bulegoetako edozeinetan.

5.2 Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ondoren, foru agindu bat emango da, zeinaren bidez onetsiko baitira deialdi bakoitzean onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak, eta horiek Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

5.3 Foru agindu horiek Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Atarian ere argitaratuko dira: ([www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo));

5.4 Betiere, hautaketa-prozeduran onartuak izateko, izangaiek egiaztatu beharko dute hautaketa-prozeduran eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela, oinarri hauetako 12. apartatuan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar den dokumentazioa ekarriz. Hortaz, interesdunak ez badu egiaztatzen agiri bidez esandako baldintzak betetzen dituela, galdu egingo ditu hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondorioz sor daitezkeen eskubide guztiak.

## 6. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAK

### 6.1 Izendapena.

Bigarren diputatu nagusiordearen eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez izendatuko dira deialdi bakoitzeko epaimahai kalifikatzaileko kideak. Izendapenak Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

### 6.2 Osaera.

Epaimahaiburuak eta lau mahaikidek osatuko dute epaimahai bakoitza, dagozkien ordezkoeekin. Kideetako batek idazkari-lanak egingo ditu.





Hartako kidetza norberaren izenean izango da beti; hau da, ezin daiteke besteren ordezkartzan edo besteren kontura jardun.

Epaimahaiak osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Halaber, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4. artikuluan jasotako ordezkartza orekatuaren printzipioa beteko da.

Epaimahaiak, komenigarria baderitzote, haietako kideei laguntzeko aholkulari espezialistak izendatzea erabaki dezakete. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

#### 6.3 Abstentzioa eta errekusazioa.

Epaimahaiko kideek ez dute beren egitekoan jardungo baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. artikuluan adierazten dituen egoeretako batean badaude, eta horren berri eman beharko diote bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen diren arrazoiak bat badago, interesa dutenek epaimahaiko kideak ezetsi ahal izango dituzte edozein unetan, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 6.4 Epaimahaien menpekotasuna oinarriekiko.

Oinarri orokor hauen eta hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoaren menpean daude epaimahaiak.

#### 6.5 Jarduketa-arauak.

Epaimahaiak, beren jardunean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara lotuko dira.

Betiere, epaimahaiburuak aginduta eta idazkariak deialdia eginda, nahikoa denbora lehenago bilduko dira. Epaimahaia balio osoz eratzeko, ezinbestekoa izango da hauek bertaratzea: epaimahaiburua eta idazkaria, edo haien ordezkariak, eta kideen erdiek, gutxienez. Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira.

Epaimahaietako kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitate botoak desegingo ditu.

Epaimahaiburuak berak edo absentziagatik, gaixotasunagatik edo legezko beste arrazoiren batengatik ordezkari izendatu den pertsonak bete ezin baditu haren egitekoak, epaimahaikideen artean antzinatasun handieneko eta adin handieneko kideak beteko ditu, hurrenkera horretan.



Idazkariak berak edo absentziagatik, gaixotasunagatik edo legezko beste arrazoiren batengatik ordezko izendatu den pertsonak bete ezin baditu haren egitekoak, epaimahaiko kideetako edozeinenek beteko ditu, epaimahiak gehiengoz izendatuta.

#### 6.6 Ahalmenak

Epaimahaiek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduko dute eta haren objektibotasuna bermatuko dute.

Halaber, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ordenamendu juridikoaren arabera ebatziko dituzte, eta behar diren erabakiak hartuko dituzte deialdi bakoitza era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak deialdian eskatutako baldintzak egiaztatzeko eskatu ahal izango du. Horretarako, 10 egun baliouduneko epea emango du. Izangairen batek baldintza horiek betetzen ez baditu edo epe horretan egiaztatzen ez baditu, epaimahaiak, interesdunari entzunaldia eman ondoren, bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari proposatu beharko dio hura baztertea, hori proposatzeko arrazoiak adieraziz.

#### 6.7 Egoitza.

Epaimahai kalifikatzaileek Arabako Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Zerbitzuan izango dute egoitza (Probintzia plaza 14, 3. solairua, Vitoria-Gasteiz 01001 PK).

#### 6.8 Zerbitzuarengatiko kalte ordainak:

Epaimahaietan parte hartzeko bertaratzeak eta emandako laguntzak eskubidea emango dute Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuarengatiko kalte ordainei buruzkoan, aurreikusitako kalte ordainak jasotzeko.

#### 6.9 Iruzurrezko jokabidearen eta lehia desleialaren tratamendua

Izangaiek, ez pertsonalki, ez hirugarrenen bidez, banaka jo ahal izango dute epaimahaiko kideengana, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen auziak idatziz planteatuko zaizkio epaimahai kalifikatzaileari, zeinak, kide anitzeko organoa den aldetik, erabaki beharrekoa erabakiko baitu.

Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu probak normaltasunez egitea eragozten duten iruzurrezko ekintzak egiten dituzten pertsonak, edo berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera lehia desleiala sortzen dutenak. Jarduera horiek bilkuraren aktan jasoko dira.

Era berean, hautaketa-prozesuan zehar ezin izango da erabili edo eduki aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitezkeen gailu edo bitarteko elektronikorik.

Izangairen batek arau horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da probatik eta hautaketa-prozesutik, eta ez da sartuko, inola ere, probaren ondorioz sor daitezkeen lan poltsan.



## **7. DEIALDIEI, EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEEN ARGITALPENEI, ERREKLAMAZIOEI ETA GAINERAKO KOMUNIKAZIO, KONTSULTA ETA GORABEHEREI BURUZKO INFORMAZIOA.**

### 7.1 Deialdiei buruzko informazioa.

Deialdien informazio orokorra Interneten egongo da, interesdunen eskura: [www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo)

### 7.2 Epaimahai kalifikatzaileen argitalpenak.

Hautaketa-prozesuaren ondorioz epaimahai kalifikatzaileak egiten dituen komunikazio eta jakinarazpenak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: [www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo).

7.3. Izangai bakoitzak, nahi baldin badu, eskatu ahal izango du hautaketa-prozesuari buruz Interneteko [www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo) helbidean argitaratzen diren jakinarazpen edo berrien abisua jasotzea SMS bidez edo posta elektronikoz, baldin eta aukera hori espresuki jasota geratu bazen hautaketa-prozesuan parte hartzeko aurkeztutako eskabidean, eskaera eredu ofizialean adierazitako baldintzetan.

### 7.4 Erreklamazioak.

Interesdunek epaimahai kalifikatzailearen erabakien aurka egiten dituzten erreklamazioak bide elektronikoz egin behar dira, Arabako Foru Aldundiaren enplegu atariaren bidez ([www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo)), haren Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bulegoetako edozeinetan.

### 7.5 Jakinarazpenak, kontsultak eta gorabeherak.

Interesdunek epaimahaiari zuzendu nahi dizkioten gainerako jakinarazpenak, kontsultak eta gorabeherak, ahal delarik, posta elektronikoz egingo dira, helbide honetara: [consultasofertasempleodfa@araba.eus](mailto:consultasofertasempleodfa@araba.eus); edo, idatziz, haren egoitzan (Arabako Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Zerbitzua, Probintzia Plaza 14, 3. solairua, 01001 PK, Vitoria-Gasteiz).

## **8. HAUTAKETA-PROZEDURA**

Hautagaiak aukeratzeko prozedura lehiaketa-oposizioa izango da.

### **8.1. Oposizio aldia:**

8.1.1 Oposizio aldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotik adierazitako ariketa edo ariketak izango ditu. Ariketa horiek kanporatzaileak izango dira.

Oposizio aldiaren balorazioa ezin daiteke izan hautaketa-prozesu guztian lor daitekeen gehieneko puntuazioaren %60 baino handiagoa, alde batera utzita euskaraz jakiteagatik merezimendu bezala emandako balorazioa.

Hautaprobak inola ere ez dira hasiko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik bi hilabete igaro baino lehenago.



Lehenengo ariketa (edo bakarra, hala badagokio) egiteko deialdia, Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratuz egingo da. Hautaketa-prozesuko gainerako komunikazio eta jakinarazpenak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: [www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo).

Izangaiei ariketa bakoitzerako dei bakarra egingo zaie, eta hartara NANA, pasaporteia, gidabaimena edo, atzerritarrek izanez gero, agiri baliokidea daukatela etorri beharko dute, identifikatu ahal izateko. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta dagokion epaimahaiak ebaluatuko ditu.

Pertsona bat ez badator edozein probatara hartarako deitzen zaion garaian, berez eta besterik gabe galduko du ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Probak egin behar diren egunerako ez badago ebatzita onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesten dituen foru aginduan prozesutik baztertuta ageri diren izangaiek aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsioa edo, hala badagokio, berraztertze errekurtsioa, eragindako pertsonen proba horiek egin ahal izango dituzte; hala ere, gerora errekurtsio horiek ezesten badira, probek ez dute baliorik izango.

#### 8.1.3 Denborak eta baliabideak egokitzea.

Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta bitartekoak moldatuko dituzte egokitzapena behar duten eta parte hartzeko eskaeran hala adierazi duten pertsonen beharrezanetara, haiek gainerako parte-hartzaile guztiekin aukera-berdintasunean izateko moduan, baldin eta horrekin ez bada hutsaltzen probaren edukia, ez eta eskatutako gaitasun maila behertu edo murriztu ere.

Desgaitasuna duten pertsonen eskabidean eskatu badituzte probak egiteko beharrezkoak diren egokitzapenak eta doikuntzak, desgaitasun maila kalifikatzeko organo tekniko eskudunak emandako irizpen tekniko fakultatiboa aurkeztu beharko dute Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuan (Probintzia Plaza 14, Vitoria-Gasteiz). Irizpen horrek duarik gabe egiaztatu eta justifikatu beharko du egin beharreko egokitzapen eta doikuntzen eskaera, epaimahai kalifikatzaileak horretarako ezartzen duen epean.

8.1.3. Oinarri espezifikoen ezarritako badago ariketa bat baino gehiago egin daitezela, ariketa baten behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo hasten den arte gutxienez hirurogeita hamabi ordu eta gehienez berrogeita bost egun baliiodun igaro beharko dira.

8.1.4. Izangaiei guztiek batera egin ezin ditzaketen ariketan, jarduteko ordena Administrazio Publikoaren Estatu Idazkaritzak egiten duen zozketaren arabera izango da, bat etorritik martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra onartzen duenak, 17. artikuluan ezarritakoarekin. Izangaiei artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.

8.1.5. Ariketa bakoitzeko behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiei hamar egun baliiodun izango dituzte ariketa horren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak



aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari. Erreklamazioetarako epealdia amaiturik, eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

## 8.2. Lehiaketa-aldia

Lehiaketa-aldian, oposizio aldia gainditu duten izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta haietako bakoitzari deialdi egokietan zehazten diren baremoen arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

Lehiaketa-aldiaren balorazioa ezin daiteke izan hautaketa-prozesu guztian lor daitekeen gehieneko puntuazioaren %40 baino handiagoa, alde batera utzita euskaraz jakiteagatik merezimendu bezala emandako balorazioa.

8.2.1 Oposizio aldiko azken ariketaren edo ariketa bakarraren behin betiko emaitzak argitaratu ostean, hamar egun baliouduneko epea ezarriko da oinarri espezifikotan aipatzen diren merezimendu konputagarriak alegatu eta, hala badagokio, egiaztatzeko, euskara jakitearena izan ezik, hori oinarri hauetako 9. apartatuan jasotakoaren arabera egiaztatuko baita.

Aurreko paragrafoan adierazitako agiriak hemen entregatu beharko dira: Giza Baliabideen Zerbitzua. Probintzia plaza, 14 - 3. solairua. Vitoria-Gasteiz.

Inolako kasutan ere ezingo dira baloratu behar bezala alegatu ez diren eta ezarritako epean egiaztatu ez diren merezimenduak.

Merezimenduak egiaztatzeko aurkezten diren dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira, edo lokalizatzailea edo aldaezin egiten dituen sinadura elektronikoa duten dokumentuak.

Lehiaketa-aldiak ez du baztertze izaerarik izango eta bertan eskuratutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

### 8.2.2 Lehiaketa-aldian baloratzeko diren merezimenduak

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek baremo bat edukiko dute, ondoko merezimendu hauen guztien edo batzuen balorazioa jasoko duena:

#### 8.2.2.1 Esperientzia.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotako merezimenduen baremoan, esperientzia orokorra baloratuko da edozein administrazio publikotan (Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne) emandako zerbitzuengatik, oinarri horietan zehazten den moduan.

Era berean, merezimenduen baremoak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuen balorazioa jasoko du, modu espezifikoa, berezian eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri moduan.

Oinarri hauen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrari eskualdatu zaizkion eginkizunetan eta zerbitzuetan emandako zerbitzuak azken horretan emandako zerbitzutzat hartuko dira.



Esperientzia baloratzeko, batu egingo dira alegatutako aldien egunak eta, batuketa egin ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira. Ondorio horietarako, 30 egun naturalek osatutzat joko da hilabetea.

Esperientzia espezifikokoaren puntuazioa ezin daiteke izan, inola ere, hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen puntuazio osoaren %20 baino gehiago, alde batera utzita euskaraz jakiteagatik merezimendu bezala emandako balorazioa.

Betiere, esperientzia orokorraren eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren ataletan lortutako baturatik aterako da esperientziagatik puntuazio osoa, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Izangaiek Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean egindako zerbitzuak alegatu beharko dituzte, horretarako ezarritako epean, baina ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz konputatuko ditu administrazio horrek.

Gainerako administrazioetan emandako zerbitzuak horretarako ezarritako epean alegatu eta egiaztatu beharko dira, egiaztagarria aurkeztuz. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak ezarrita daukan ereduari, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, lanpostuaren izena, titulazio taldea, eskala, azpieskala, klasea eta espezialitatea, edo kidego eta eskalak, edo lan kategoria zehaztuz.

Deialdiaren oinarri espezifikoetan hala jasota baldin badago, izangaiek egiaztatu beharko dituzte merezimendu gisa alegatu diren betetako lanpostuetako eginkizunak.

Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak beharrezkotzat jotzen badu aurkeztutakoez gainera beste dokumentu batzuk aztertzea alegatutako esperientzia baloratzeko, haiek aurkez ditazela eskatu ahal izango die izangaiei.

#### 8.2.2.2 Informatikaren ezagutza.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetako merezimenduen baremoan adierazten diren informatika-ezagutzak baloratuko dira. Ezagutza horiek IT Txartelaren ziurtapen sistemaren bidez egiaztatuko dira.

Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen badira, haietako bat bakarrik baloratuko da.

IT-Txartelak edo beste erakunde publiko batzuek emandako antzeko ziurtagiria, betiere, merezimenduak aurkezteko aldiari alegatu beharko dira.

Arabako Foru Aldundiak ofizioz eskatuko dio erakunde jaulkitzaileari (IT-Txartela) izangaiek lortu dituzten eta horretarako ezarritako epean alegatu diren egiaztagarriak ziurtatzeko.

#### 8.2.3. Merezimenduen erreferentzia-data.

Oinarri hauetan euskararen ezagutzari buruz ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna erreferentziatzat hartuta konputatuko dira merezimenduak.

### 9. EUSKARAZ JAKITEA.



Euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratuko da derrigortasun data igarota daukan hizkuntza-eskakizunik gabeko lanpostuei dagozkien deitutako plazak lortzeko, honako hizkuntza-eskakizunetako bat egiaztatuz: 1., 2., 3. eta 4. HE.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan, merezimendu gisa baloratzekoa izanez gero, euskara jakiteagatik hautaketa-prozesuan lor daitekeen gehieneko puntuazioa ezarriko da, deitutako plazen eskala eta azpieskalak eta, hala badagokio, klase eta espezialitateak bete ditzaketen lanpostuei esleitutakoetan nagusi den hizkuntza-eskakizunaren arabera.

Euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea baldintza espezifiko bat da hizkuntza-eskakizuna esleiturik eta derrigortasun data igarota daukaten lanpostuei dagozkien plazak lortzeko.

### **9.1 Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko erreferentzia-data.**

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko erreferentzia-data, bai merezimendu gisa baloratzen denean, bai berariazko eskakizuna denean, oinarri orokor hauetako 9.3 atalean ezarritako euskara-proba bateratuko lehenengo ariketa egiten den eguna izango da, salbu eta izangaiek euskara-proba horretan parte hartuz lortzen badituzte.

### **9.2 Euskararen ezagutza egiaztatzea.**

#### **9.2.1 Ofizioz egiaztatzea.**

Arabako Foru Aldundiak ofizioz egiaztatuko du izangaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean alegatutako hizkuntza-eskakizuna baduten, bai eskakizun hori baldintza denean, bai merezimendu gisa baloratzekoa denean, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta eginda.

Egiaztatutzat emango dira aipatutako erregistroan jasotako hizkuntza-eskakizunak, baldin eta oinarri orokor hauetako hurrengo apartatuan ezarritako euskara-proba bateratuko lehenengo ariketa egiten den eguna baino lehenago egiaztatuturik badaude.

9.2.2 Erregistro horretan jasota ez dauden euskararen ezagutza-ziurtagiriak edo tituluak dauzkaten izangaiek, parte hartzeko eskabidean alegatutako hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak epe bat irekiko du pertsona horiek aipatu diren agiriak aurkez ditzaten.

9.2.3 Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko hizkuntza eskakizunen baliokideak diren egiaztagiriak eta tituluak bi dekretu hauetan zehaztu dira: azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena.

### **9.3 Euskara proba.**

Izangaiek euskararen eskakizuna egiaztatu ahal izango dute Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP) deitzen duen proba bateratuan parte hartuz.



Proba hori egin ahal izateko, izangaiek dagokien deialdian parte hartzeko aurkeztutako eskabidean espresuki adierazi beharko dute aukeratzen dutela hizkuntza-eskakizunak proba horren bidez egiaztatzea, eta, horren ondorioz, ezingo dute egin proba hori ez badira baliatu aukera horretaz.

Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak argitara emango ditu euskara-probaren lehenengo ariketa egingo den eguna eta lekua.

Ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliadun izango dituzte euskara ariketaren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak epealdia amaitu eta aurkezten diren erreklamazioak ebatzi ondoren epaimahaiak euskara azterketako behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

## 10. HAUTAKETA-PROZESUKO AZKEN KALIFIKAZIOA

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira.

Lehiaketa-aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotako baremoen arabera esleitutako puntuen batura izango da.

### 10.1 Kalifikazioen zerrenda.

Oposizio aldia amaituta, aurkeztutako eta egiaztatutako merezimenduen behin-behineko balorazioa egingo da, oinarri hauetako 8.2.1 apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hautaketa-prozesuko azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa-aldian lortutako puntuen batura izango da.

Alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen balorazioa egin ondoren, dagokion epaimahaiak honako zerrenda hauek egingo ditu, puntuazio hurrenkeraren arabera:

A. Sarrera libreko sistemako azken kalifikazioen zerrenda.

B. Sarbide libreko sisteman desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren azken kalifikazioen zerrenda.

### 10.2. Berdinketak ebaztea.

Epaimahaiak honako arau hauek hurrenez hurren aplikatuz desegingo ditu berdinketak:

#### 10.2.1. Lehenetsun klausula.

Berdinketa gertatzen bada, lehenetsuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskala, azpieskala, klase eta espezialitateetan, salbu eta beste izangaiengan, sexuagatik





bereizkeriazkoak izan gabe, neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek zehatuko dute berdinketa hausteko irizpide hori aplikatu behar den ala ez, eskala, azpieskala, klase eta espezialitate egokian emakumeek duten ordezkartzaren arabera.

#### 10.2.2 Berdinketa hausteko irizpideak.

Lehetasun klausula aplikagarria ez bada edo, aplikagarria izanik ere, berdinketak irauten badu izangaiek lortutako puntuazioan, honako irizpide hauek hurrenez hurren aplikatuz ebatziko da berdintasuna:

- Puntuazio handiagoa oposizio aldian.
- Puntuazio handiagoa lehiaketa-aldiko esperientzia espezifikoaren atalean.
- Esperientzia espezifiko handiagoa, baloratu daitezkeen aldi guztiak egunka zenbatuta, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritako gehieneko puntuazioa (holakorik izanez gero) aplikatu gabe.
- Puntuazio handiagoa lehiaketa-aldiko esperientzia orokorraren atalean.
- Puntuazio handiagoa euskaraz jakitearen atalean
- Puntuazio handiagoa informatikaren atalean

Berdinketa hausteko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak irauten baldin badu, epaimahaiak zozketa egingo du, eragindako izangaia bertan daudela.

#### 10.3 Erreklamazioak.

Azken kalifikazioen zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte soilik lehiaketa-aldiaren eta, egokia bada, berdinketa hausteko irizpideak ezartzearen gainean egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

### 11. LANGILEEN HAUTAKETA

11.1 Erreklamazioak egiteko epea amaituta, eta aurkeztu direnak (holakorik badago) ebatzi ostean, epaimahaiak aginduko du hautatutakoan eta eskainitako lanpostuen zerrendak argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea ezarriko du izangaiek adieraz dezaten nahi duten lehenespen hurrenkera lanpostu horien artean.

Lehenespen ordena garaiz eta behar bezala adierazten ez duena ordena horretako azken lekura igaroko da.

11.2 Hamar egun balioduneko epe hori amaituta, dagokion epaimahaiak karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamena egingo du, zeinean adieraziko baitira haietako bakoitzari dagokion destino zehatza, irizpide hauen arabera: izangai bakoitzak bere txandan daukan puntuazio hurrenkera,



eskaintako lanpostuen artean adierazitako lehenespene hurrenkera eta lanposturako eskatzen diren betekizunak betetzea.

Lanpostua eskuratzea errazteko, parte hartzeko edozein sistematan ezinduentzat gordetako kupoan hautatu diren izangaiek epaimahai kalifikatzaileari eska diezaiokeete plazak aukeratzeko lehentasun ordena aldatzea, behar bezala egiaztatutako mendetasun pertsonala, mugitzeko zailtasuna edo antzeko arrazoiak argudiatuta. Epaimahaiak aldaketa hori egitea erabakiko du behar bezala arrazoituta badago, eta mugatuko da lehentasun ordenan behar den gutxieneko aldaketa egitera desgaituak lanpostua eskuratu ahal izateko.

#### 11.3 Izendapen proposamen gehigarriak.

Epaimahaiak ezin dezake proposatu deitutako plazak baino pertsona gehiago karrerako funtzionario izendatzerik, honako kasu hauetan izan ezik:

A. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko beste eskala, azpieskala edo talde bateko karrerako funtzionarioak eta karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu baten titularrak diren pertsona aukeratuek, baldin eta, lanpostuen zerrendaren arabera, eskala, azpieskala edo talde horretako eta deitutako plazei dagozkienetako funtzionarioek bete badezakete lanpostu hori, lanpostuak aukeratzeko izapidean esleipen prozesuaren ondoriozko lanpostua edo ordura arte betetzen zuten lanpostua aukeratu ahal izango dute, betiere lanpostuko baldintza guztiak betetzen badituzte.

Kasu horretan, deialdiaren barruan dauden plazak ez dituzte kontsumituko, eta aukera hori egin ezean haiei legezkiekeen plazak hurrengo pertsonari esleituko zaizkie, dagokion deialdiko puntuazioen behin betiko zerrendako hurrenkerearen arabera.

Funtzionario horiek ez badute erabiltzen titular gisa daukaten lanpostuaren esleipendun izateko aukera, titular ziren eta aukera hori ez gauzatzeagatik hutsik gertatzen diren plazak esleituko dira.

B. Aukeratutako pertsonak uko egiten badio izendatu edo postuaz jabetu baino lehen.

C. Aukeratutako pertsonak lanpostua gorde gabeko eszedentzia eskatzen badu deitutako plazei dagokien eskalan, azpieskalan edo taldean, lanpostuaz jabetzeko garaian.

D. Izendatutako pertsonak postuaz jabetzen ez badira ezarritako epean, ezinbesteko arrazoiengatik izan ezik.

Esandako kasuetan, deitutako lanpostuen kopuru bera betetzeko behar adina izendapen proposamen gehigarri argitaratuko ditu epaimahaiak, eta, hala badagokio, oinarri hauetako 11. apartatuan eta hurrengoetan ezarritako izapidea errepikatuko da proposamen gehigarri horien barruan dauden pertsonentzat.

## 12. AGIRIAK AURKEZTEA

12.1 Karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamena edo, hala badagokio, proposamen gehigarriak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamen horren barruan dauden izangaiek 20 egun balioduneko epea izango dute deialdian eskatutako gaitasun baldintzak eta betekizun orokor eta



espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ondoko dokumentu hauek aurkezteko, epaimahaiak alde zuzenetik eskatu ez baditu:

A. Nortasun Agiri Nazionala.

B. Izangai atzeritarrek Arabako Foru Aldundiaren jakinarazpen bat jasoko dute, non zehaztuko baita, duten egoeraren arabera, zer agiri aurkeztu behar duten nahitaez.

C. Eskala, azpieskala, klase eta espezialitatera sartzeko eskatzen diren ikasketa-tituluak (deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten dira).

D. Zinpeko aitortpena edo hitz ematea, adieraziz ezen ez dagoela ezgaitua eginkizun publikoetan jarduteko, ez dela baztertua izan edozein administrazio publikoren zerbitzuetatik diziplina espediente baten bidez, eta ez dagoela sartuta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen bateraezintasunenak, jasotzen dituen eta ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarten egoerarako batean.

E. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena edo hitz ematea aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daudela funtzio publikora sartzearagotzen duen diziplina zehapen edo kondena penal baten mende.

F. Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

G. Desgaituentzat gordetako plazaerako lehiatzen direnek, indarrean dagoen legeriaren arabera, ehuneko 33ko desgaitasun gradua edo handiagoa egiaztatu beharko dute administrazio organo eskudunak (foru aldundietako edo autonomia erkidegoetako sail eskudunak edo IMSERSOk) jaulkitako ziurtagiri egokiaren bidez.

Era berean, hautatuek egiaztatu beharko dute ez dutela gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik, oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera dagozkien eginkizunak betetzea eragotzen duenik, eta onartu egin beharko dituzte Arabako Foru Aldundiak zehazten dituen zerbitzuetan egingo diren probak eta osasun azterketak.

Aurkeztutako agiriak jatorrizkoak izan beharko dira, kopiatzeko eta konpultsatzeko, edo aldaezin egiten dituen lokalizatzailea edo sinadura elektronikoa daukaten agiriak, eta Arabako Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Zerbitzuan aurkeztu beharko dira (Probintzia Plaza 14, 3. solairua, Vitoria-Gasteiz, 01001 PK). Dokumenturen bat beste hizkuntza batean idatzita badago, dokumentu horrekin batera zinpeko itzulpena ere aurkeztu beharko da.

Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiek zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

#### 12.2 Agiriak ez aurkeztea

Izangaiek ez badituzte aurkeztu behar diren agiriak adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo agiriak aztertuta ondorioztatzen bada ez dutela betetzen deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza orokor edo espezifikoetako bat, edo ez badaukate eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala, izendapen proposamenetik kanpo utziko dira, eta deuseztatuta geratuko dira.



haien jardun guztiak, eskabidean datu faltsuak emateagatik bereganatu lezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Kasu horietan, errepikatu egingo dira oinarri hauetako **11. apartatuan eta hurrengoetan** adierazitako urratsak, alde batera utzita aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik hautaketa-prozesutik baztertuak izan diren izangaiak. Hala ere, saihestu egingo dira aurreko beste batzuk errepikatzea diren jardunak eta, horregatik, oinarri honetan adierazitako agiriak ez zaizkie eskatuko dagoeneko aurkeztu dituztenei, eta ez dituzte berriro egin beharko probak eta osasun azterketak dagoeneko gainditu dituztenek.

Arrazoi berberengatik beste norbait baztertua gertatzen bada, prozesua errepikatu egingo da aurreko paragrafoan adierazitako moduan, eta horrela behin eta berriro, lortu arte hautatuetako inor ez baztertua arrazoi horiengatik.

### **13. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA ETA LANPOSTUEZ JABETZEA**

Bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak foru agindu bidez Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko eskala, azpieskala eta klaseetako karrerako funtzionario izendatuko ditu izendapen proposamenetan agertzen diren izangaiak, eta dagozkien lanpostuei atxikiko zaizkie.

Izendapenak Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta Arabako Foru Aldundiaren enplegu atarian argitaratuko dira.

Izendatuek hilabeteko epean hartu behar dute jabetza karrerako funtzionario moduan, izendapena egiten duen foru agindua ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez dutenek, eta salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko eskubideak. Halako kasuetan, baita hautatutako pertsonen beren izendapena baino lehen edo lanpostuaz jabetu baino lehen uko egiten badiete lanpostuei, edo lanpostuaz jabetzerakoan lanpostua gordetzen ez den eszedentzia eskatzen baldin badute, kasuan kasuko epaimahaiak izendapen proposamen gehigarri bat egingo du dagozkien izangaiantzat, betiere hautaketa-prozesuko azken kalifikazioaren puntuazio hurrenkeraren arabera. Proposamen gehigarri horien barruan dauden pertsonentzat, berriro egingo da oinarri hauetako 11. apartatuan eta hurrengoetan ezarritako izapidea.

### **14. ALDI BATERAKO ENPLEGUAREN POLTSAK**

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoa ezarriko da, kasu bakoitzean, aldi baterako lan poltsa osatzen duten ala ez.

### **15. DEIALDIAREN AURKA EGITEA**

Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen dituzten kasu eta eretan.